

Eguneko zentroaren zerbitzua errehabilitazio psikosozialerako zentroetan buru-eritasuna dutenentzat.

Prestazio mota: Bermatu gabekoa.

Baliabide mota: Eguneroko arreta zerbitzua (egunekoa).

Baliabidearen xedea: Berariazko establezimendu batean egunez emandako zerbitzua, **behar pertsonal oinarrikoak, terapeutikoak eta soziokulturalak asetzeko, eta ohiko ingurunetik ez mugitzeko erraztasunak eman eta zaintzaileei laguntzeko.**

Onuradunak: **18 eta 65 urte bitarte eta buru-nahaste larria duten** pertsonak.

Jasotzeko baldintzak:

- %33ko edo hortik goitiko elbarritasuna aitortua izatea.
- Eskaera egin aurreko bi urteetan Nafarroan egiazki eta jarraian bizi izan dela frogatzea.
- Kasuan kasuko **Adimen Osasuneko Zentroak emandako egokitasun txostena.**

Zerbitzua irekita: Urtean hamaika hilabetez, urteko lan egun guztietan, astelehenetik ostiralera, arreta emateko gutxienez 8 orduz.

Zerbitzuaren intentsitatea: Programa harrera eta lehen balorazio fasearekin hasiko da, eta banakakoaren arreta plan bat diseinatuz, laguntza beharrak, helburuak, bete beharreko jarduerak eta horien intentsitatea barne hartuta.

- Jantokiko zerbitzua: bi otordu egunean.
- Laguntza eta gainbegiratzea eguneroko bizitzako jardueretan: egunero.
- Arreta soziala: astean behin.
- Arreta psikologikoa/psikopedagogikoa: astean behin.
- Psikoestimulazio integrala: astean behin.
- Terapia okupazionala: lanegun guztietan, astelehenetik ostiralera.
- Gaitasun sozialak eta diruaren erabilera: astean behin.
- Komunitatean integratzea: astean behin.
- Aisia eta denbora libreko jarduerak: astean behin.
- Familientzako laguntza: jarraipeneko, lau hilean behin.

Ebazteko epea: Hiru hilabete.

Ordainketan parte hartzea: Bai.

Jarduteko eremua:

Nafarroako Foru Komunitatea.

